

Uztardura Teoriaz:

literatur tradizioaren zenbait adibide

1. Bere ≠ bere burua 1

2. *bere burua*, beti osagarri 1

3. *Elkar ere*, (ia) beti osagarri 4

1. Bere ≠ bere burua

(1) *defentsa*

- a. Abokatuak bere defentsa egin zuen.
- b. Abokatuak bere buruaren defentsa egin zuen.

(2) *behar*

- c. Jonek bere beharra azaldu du.
- d. Jonek bere buruaren beharra azaldu du.

(3) *maitasun/gorroto*

- e. Neskak bere maitasuna/gorrotoa agertu du
- f. Neskak bere buruaren maitasuna/gorrotoa agertu du.

(4) *kritika*

- a. Chomskyk bere kritika egin du.
- b. Chomskyk bere buruaren kritika egin du.

(5) *ardura*

- a. zeure ardurak hartu beharko dituzu zeuk ere...
- b. Zeure buruaren ardura hartu beharko duzu...

2. *bere burua*, beti osagarri

Kokapen izenak: gain, aurre, alde, barne

- (6) a. He Gudu - 109: Ez dezazula *zure buruaren* gaiñean haiñitz konda; zeren, haiñitz urthez mundupean bizi izan ondoan, ez duzun hurren batere sentitu Haragiaren kilikadurarik edo mobimendurik
- b. Ibiñ Virgil - 57: Eramaizkitzu errautsok landara, Amarili; lats lasterrean *zere buruaren* gainetik iraitzi itzatzu, atzera begiratzeke

- c. KM MEIG V - 104: Bazekien, ordea, dudarik gabe, inoiz aitortu ez badu ere, *bere buruaren* aurrean zuritu behar zuela, zuzenbideari dagokiona ematekotan, arrotzen aurrean zalaparta bizian aldarrikatu zuen euskararen berri ona
- d. KM MEIG VI - 98: Honekin baikaude zorretan hitz-neurtuetarako dohairik ez dugun idazleok, izen larri hori *nere buruaren* gainean ezartzeko baimena ematen badidate
- e. Vill Jaink - 83: Labur, jarraitu birtuteari, eta orrela zeure izatearen esana egiten ari zera, eta era berean, *zere buruaren* alde lan egiten duzu
- f. Vill Jaink - 95: Ara zer dion batek: Bildur izateko da, Jainkoaren fedea giza-biotzetan itzaliz, ez ote zaion gizadiari kentzen *bere buruaren* gain altxatzeko bear duen ego-pare aundi ori
- g. Etxde JJ - 95: Salatutakoa *bere buruaren* alde jaiki zan ojuka: Iruzurtia bera duzute
- h. Arti MaldanB - 229: Iharrausi ninduen gertaera harek, *nire buruaren* barnean dolorez

Erlaziozko izen abstraktuak: ardura, ahalge, kezka, kontzientzia, beldur

- (7) a. Or Tormes - 91: Aitonen seme batek ezeutsok zorrik Yainkoari ta erregeari baiño; ta eztok bidezko gizona nobera ba ba, *bere buruaren* ardurea lipar batean iztea
- b. Jetchep - 76: Denbora batez *ene buruaren* ahalge nintzan eta
- c. Txill Let - 23: Bildurra da, bada, *nere buruaren* bildurra alegia, bakardadetik baztertzen nauena
- d. Vill Jaink - 82: Eta urrats bat aurrerantza emanik, esango dizute oraindik: *Zure buruaren* kezka izatea, ezta aski
- e. Vill Jaink - 152: Giza-ariman, berriz, naikunde orrek *bere buruaren* konzientzia artzen du, bere xedearen berri ba-daki

irudi-izenak

- (8) a. Mde HaurB - 6: oraindik ere besteek haren baitan jarritako itxaropenari amore ematera gertu zen, besteengatik sortutako *bere buruaren* aizun-irudiari uko ez egitearren
- b. KM MEIG IX - 136: Hauetako bakoitza harrotu eta ezerezten dunean, *bere buruaren* une hartako argazki gertatzen da

Erlaziozko izenak: jabe, etsai, nagusi, borrero, eredu, olerkari, berri

- (9) a. JE Bur - 53: bainan gure nahikundea litake, mendeak eskoletxe mota hoier buruz hartzera doan sailak utz baleza bakotxa *bere buruaren* jabe
- b. TAg Uzt - 87: Ez dek ik emen Jaungoikoa beste nagusirik, ez jaberik; *ire buruaren* jabe aiz
- c. Vill Jaink - 174: Baditu adimendua, *bere buruaren* jabe izatea eta betiko irautea
- d. KM MEIG IX - 135: Berau da neretzat *bere buruaren* eredu; lana zehazten, zabaltzen, aldatzen eta bere egokiera arkitzen doan neurrian, egingaia bera bilakatzen da geroko egitekoaren ispilu
- e. KM MEIG V - 106: *Bere buruaren* nagusitasunaz aspaldi jabetua zen Larramendi ere
- f. Vill Jaink - 54: Xedetasun ori, ordea, itsu da, eztaki *bere buruaren* berri, eta mundu eta izakien barnean datza
- g. Barazt Medi - 151: Damnatuak berak egiten du Ifernuan bere suplizioa, bera da *bere buruaren* burreu kruela, instant guziez bere burua tormentatzen du egiten dituen erreflexione bihotz-arrailagarriez: damnatua naiz, dio, eta ene faltaz:
- h. Ax - 361: Egunetik egunera bekhatutarik ilkitzeko luzamendutan zabiltzan bitarte hartan, *zeure buruaren* etsai zara

Aditzetik eratorriak

- (10) a. Vill Jaink - 37: Munduak eztu bere baitan *bere buruaren* esplikazioa, ori bistan da
- b. Vill Jaink - 58: Materiazko estalki gogorrean barrena, biziak ba-daki bidea urratzen, *bere buruaren* adierazle diren agerpenak kanpora ateratzen
- c. Etxde JJ - 73: Ta oriek ola, aki-akula billa ari aiz oraindik *ire buruaren* zurigarri
- d. Etxde JJ - 73: *Bere buruaren* galera ikusirik, bearturik ote zegon egarbera egindako ziñari eusten
- e. Zait Plat – 88: Sokrate bere barruan batuago, ta gai ugariagoak eta sakonagoak aditzen zituen nekerik bage; goitikako adimen-argia-edo artzen baitzuen, Iaungoiko-usainez *bere buruaren* azterkizunak adieraztean, ortarakoxe deitua

zalako adierazten ztieun, eta Elade'ko erlijio-agintaririk nagusienak ortaratuta, ain zuzen ere

f. Arr GB - 53: Aur preziatuari bere ezaguera guziz goiz esnatu zitzaion; *bere buruaren* ezaguera izaten, eta ingurumaiko gauzak nolakoak ziran igertzen; hitzak esaten, eta esaten zitzaiozkanak aditzen ordurako abiatu zan

g. Zait Sof - 142: *Nere buruaren* salatzailea izan nai dut

3. *Elkar ere, (ia) beti osagarri*

Kokapen izenak: ondo, oste, atze, aurre, gain, arte, aldamen...

- (11) a. Or Mi - 24: Bi gazteak eseri ziren muñaska batean *elkarren* ondoan
- b. Or Eus - 146: Iztar erdiraiño da elurra gaiñean; anka jaso dukenik ez dagoke Leitza'n; zurian beltzik datoz, euliak esnean; obeki itsas-antzarak *elkarren* atzean
- c. Or Eus - 157: Iñauteri-aurrean, irutan ostegunean, gizon, emazte, gazte ta zaarren jaiak *elkarren* ostean ondoan), atzetik); iñauteriak iru egun, eta barau Austerre-egunean
- d. KM MEIG II - 46: Itzulirik eman ditu, euskara eta gaztelera *elkarren* aldamenean
- e. Lard - 185: Joab'i zegokion gerra onetan agintzea, *Dabid bera joan nai etzalako, zirudienez, Israel'tarren odola *elkarren* artean isurtzen ez ikusteagatik
- f. Ag G - 188: Bertsodunaren urre samar neska-mutil buru ariñak *alkarren* aurrean dabiltz, triskatzen, antxume zoroen antzera, akitika, bira biraka, irrintzika

senidetasunezkoak: anai, senide, haurride, senar, emazte

- (12) a. KM MIH - 105: Batasunik ez denean, bi moldetakoak izan ohi ditugu ezberdintasunak: edota 1 alderdi bateko eta besteko hitzek ez dute itxuraz elkarrekin zer ikusirik, edota 2 erro batekoak izanik, badute *elkarren* eitea, *elkarren* senide dira, baina hots-aldaketa bereziek saihestuak
- b. KM MIH - 391: Eta orain, qq trebe baten bitartez sinesterazi nahi digute, nolabait eta nonbaitetik ere, *Bizkaiko aditza eta lapurtarra *elkarren* ahaide hurbilagoak direla *Gipuzkoa-Nafarroetakoa beste edozeinen baino
- c. Ub - 16: Gizon-emakume guziak dira *alkarren* anaiak

d. Bilbao Ipuib - 276: Illabete barru, *alkarren* senar-emazte doguz gure Txomin Zorri ta Miren Arantxa

e. LÇ Ins - 72: ...baina gure hurkoetara-ere karitatez usatu behar dugula, guziek Aita bat dugunaz geroz, eta *elkharren* haurride garenaz geroz

Erlaziozko izen abstraktuak: beldur, amodio, gorroto, lotsa, antz, lehia, behar, ardura, kutsu, susmo, eite, erruki...

- (13) a. Urruz Urz - 55: Anaiak ezpadute *elkarren* antzik, nork izango du?
- b. Lard - 187: Bereala *elkarren* leiean irten ziran, sari andi bat irabazi nai zutenak
- c. Zby - 105: Kattalin maitea, ...: Zuk eta nik badugu *elgarren* beharra
- d. Zait Plat - 126: Giza-soin atalak *elkarren* bearrean dauden eran, gizonaren izatea ta gizartearen muina aztertu ondoren, laugarren idaztitan zuzenbidea ontan datzala adierazten digu, qq, ots, atal bakoitzak bere egingoa egiten
- e. Zait Plat - 126: Yainkoak soña atondu digu, atalik narrasenei itzal geiago ezarririk, soñean alderdikeririk izan ez dedin; atalek, oster, *elkarren* ardura dezaten
- f. Barb Sup - 182: Eta, hala hala, aspaldiko, edo, hobeki erraiteko, bethiko adixkideak ziren *Ñakero eta *Piarre, eta *elgarren* beldurrez edo bertzela, egundaino bat bertzeari lotzerat ez ziren oraino atrebitu
- g. KM MIH - 198: Baditugu euskaraz *elkarren* antzeko hitz bi, esan-nahiari dagokionez: haur eta ume
- h. KM MIH - 334: Aita baten seme izanik, badute *elkarren* eitea, baina ez dira berdinak, ezta alderatzeko ere
- i. KM MEIG VI - 159: Nolanhi ere, han eta hemen ez da amets zoroa galderazko eta baldintzazko perpausen egiturek, orain dirudienez axalean, lehen agian barrenago, duten *elkarren* kutsua
- j. Ag G - 122: Iñork etzuan gurutze bat kopetan egiten edo Aita gure bat esaten, kristau oroipenik etzualako edo lagun beldurrez; denak utzitzen zuten jai egunetako Meza, elizetatik urruti zeudelako edo *alkarren* lotsaz; denak egiten zuten lanik gogor ta neketsuena, igandietan ere, nagusiekikoa idukitzeagatik edo besteak baño gutxiago ez irabazteagatik
- k. Mg CO - 69: Ez darue damurik konfesinoera *alkarren* gorrotuan bizi dirianak, ta gorroto benetakua kendu baga duazanak konfesetara

- l. Noe - 74: Txopua bazan gutxien gutxienaz berrogei metro luzian, bi katu oiek punta-puntako adar bitan jarri zian; kararik kara begiratuaz *alkarren* bildur etzian, aiek etziran andik jatxiko goserik izan ezian
- m. fB Ic I - 60: Ta zeinbat dan *alkarren* amodijua, ta karinua andijagua, ainbat da alkar galduko ete dabeen, edo ez ete dabeen arduria bere andijagua
- n. Echa Jos - 158: Zuek eztakizue zer egitten dozuen Eladi Bilbora biralduteaz Josetxogandik aldendutearren: eztakizue gisa orretan *alkarren* erruki izango direana, ta egunaro geittuko dana euren adiskidetasuna, alkar ikusitta baño inddar geiagoaz: egur igarrak batuten zabilte zeuen asmoak kiskilduteko, ta oker urtengotzuez burubide guztiok Eladiri isten ezpotzazue ibilten, beste erriko neskatillak dabilzan lez
- o. Etxde JJ - 55: alare, urtebeteren aldeak ez tik ezer esan nai gazteak *alkarren* gustokoak izatekotan
- p. NETx LBB - 81: Or bezela, emen ere, *alkarren* susmo ta bildurrez bizi gera
- r. Xa Odol - 325: Hau da ere, Jainkoa, eskatzen zaizuna: espos hauetan beira sendo maitasuna, *elgarren* errespetu ta leialtasuna, deusek ez dezan markits hauen batasuna

Erlaziozko izenak: adiskide, lagun, etsai, arerio, berri, zale...

- (14) a. KM MIH - 369: Ez nuke, ordea, egia osoa esango, eta, egia esatekotan, egia osoa zor dugu, hemen aitortuko ez banu zenbateraino lagundu ninduten arrotz zirelako irakasleek, batez ere, Julio Caro Baroja, gure-gurea dugulakoan, ez dut aipatzen, *elkarren* agitz adiskide ez ziren Jose Vallejos eta Antonio Tovar'ek
- b. KM MIH - 107: Batzuetan, haatik, zaharrak zaharregiak dira, azeari, esate baterako, eta beste batzuetan *elkarren* etsai agertzen zaizkigu zahartasuna eta jatortasuna, euskal forma berezia
- c. Ag G - 139: Malentxok oñez ikasi zuanetik aurrera, *alkarren* adiskide ta lagun ezagutu genduzan neskatilla ura, Manuel ta Jose
- d. Or Scruz - 42: Gañera, ba ziran liberalak Oñatin, Bergaran, Mondragun, Aramaion eta Elorrion, eta danak erabat asi ziran *elkarren* berri zutela, mugitzen
- e. KM MIH - 198: Eta aipatu ditugun fonema bi horiek, *elkarren* kideko izanik, berdinak dituzte, n'tarik, n1 bereizgarri
- f. KM MEIG IV - 103: Bildu zituenak oro, edo gehientsuak, ordea, *elkarren* pare eta kide dira formaren aldetik

g. ABar Goi - 34: Agian gure adimenak ekartzen dizkigun eztabai garratzak aldentzeagatik; bañan gero, *alkarren* zaletasuna aunditzean, asmo oiek oztutzen dira, ta ikusi arren, garbi asko, senarra ez degula gure oituretara ekarriko ez degu utzitzen

Aditzetik eratorriak

- (15) a. Mattin - 76: Espos-egun hau izatu dute bien bihotzen lotgarri; inen zirela, hitz eman dute esku emanez elgarri, zorionean partzuer eta penetan kontsolagarri; hitz bakar batez erran dezadan: *elgarren* atsegingarri
- b. Ldi BB - 74: Mendian ari da kukua kantari; Basoa ta Itzala *elkarren* maitari;
- c. JA Iraz Bizia - 71: *Elkarren* ezaguera egin dezute beraz
- d. KM MIH - 106: *Elkarren* itxuraldatze besterik ez direnetan, zenbait iritzi har daitezke oinarri, bide garbirik maizegi ikusten ez bada ere:
- e. KM MEIG IX - 122: Beraren haziera biurria, zuzena, biak arkitzen dira Txillidaren eñean, ez baitira *elkarren* galtzaile; marrazki bakunenetik ateratzen da
- f. Echa Jos - 238: Eladitxo, jolas orduetan, bere neskatilla lagunagaz, da Josetxo ikusteko gogoaz, joaten zan Ondartzarutz goiko bidetik, eta Josetxo ordu orretan Mundakarutz beko bidetik: ezeben alkar ikusten, egun baten *alkarren* ikusbidean jarri zirean arte
- g. Etxde JJ - 32: Alabaiña, etxean nekez sortzen zitzaien abagunerik nebarrebari bakarka egoiteko *alkarren* kontsolagarri ta Piarres ahal bestean etxetik kanpo asi zen billatzen biotzaren atsegintasuna
- h. Etxde JJ - 48: Harritxabaleta ta jendarmak *alkarren* ezagunak ziran eta yaun apeza Durundara alderatzen ikusi zuteneko itzalki agurtu zuten
- i. Etxde JJ - 36: Bai, Gaxuxa, zuk nai baduzu *alkarren* maitari biziko gera
- j. HU Zez - 28: Ezen asko tokitan orai diren bezalako ostatuak deus onik ez dira, baizik ere *elgarren* poxolu; *elgarren* jale, eta bertzen galgarri
- k. HU Zez - 203: Biak bardin hordi arrail; zoinek zeraman bertzea, ez baitzinuen ezagutuko ez eta *elgarren* laguntzale ote ziren, ala poxolu

Edukitze besterenezina (gorputz atalak): beso, bihotz

- (16) a. Laph - 225: Xalupakoek eta untzikoek elgar besarkatzen dute, nigarrez daude *elgarren* besoetan

- b. Azc PB - 142: Eta agurak egozan errenkura barik batek bere ezeukala Kontzen gomutarik: onek eta maiteak *alkarren* besoti igaro eben Mungia urien kanpoti.
- c. Mde HaurB - 109: Gizona eta haurra pintatuko zituen *elkarren* besoetan, bere oroimen amultsua gidari; haien elkar-maitatzea izan zen mirariaren historia kontatuko zuen, bere bizi guztirako gomutagarri
- d. NEtx LBB - 353: Ez genekian *alkarren* biotzaren berri: jaso dezagun lenbailen Maitezko uztarri
- e. KM MIH – 199: USA eta URSS *elkarren* besotik dabilta eta amerikanoen antz gehien duten linguistika-liburu eta aldizkariak soüietikoak dira, hain zuzen